



**SUPERLIGA
SIROKO**
PRO-AM DIVISION

**SUPERLIGA SIROKO 2019
PROBEN ANTOLAKETARI ETA GAUZATZEARI
BURUZKO OINARRIAK.**

WWW.SUPERLIGASIROKO.COM



I KAPITULUA

| SUPERLIGA SIROKO ETA PARTE-HARTZAILEEI BURUZKOA

I ARTIKULUA

1 SUPERLIGA SIROKO 4 proba izango ditu gizonezkoen eta emakumezkoen kategorian, eta data eta toki hauetan egingo dira (1)

- Sopelana: maiatzak 18 eta 19

- Berría: ekainak 1 eta 2

- Salinas: abuztuak 3 eta 4

- Doniños: irailak 28 eta 29

2 Probetan parte hartzeko ezinbestekoa izango da federazio-lizentzia bat izatea eta hura indarrean izatea.

3 Parte-hartzaile guztiek NAN/PASAPORTEA, Prize Money ordaintzeko banku-informazioa eta federazio-txartela edo akreditazioa aurkeztu beharko dituzte proba bakoitzaren Check-in bulegoan.

4 Parte-hartzaile guztiek www.superligasiroko.com helbidearen bidez eman beharko dute izena, gehienez 34 mutilek eta 34 neskek, proba bakoitzak 40 €-ko kostua izango du, baita Playoff-ak ere, antolakuntzak izendatu eta banaka jakinaraziko dien Wildcard-ek (2)

5 Playoff-etan ez da Wildcard-ik izango.

6 Kategoría bakoitzean 36 atletek hartuko dute parte, antolakuntzak izendatutako Wildcard-ak barne.

7 Proba bakoitzak antolakuntzak izendatutako 12 serieburu izango ditu emakumezkoen eta gizonezkoen kategorian.

8 Ordezkoen zerrenda bat izango da, kategoría bakoitzeko 36 parte-hartzaileetan izan daitezkeen bajak estaltzeko.

9 Proba bakoitzean izen-emateko epea proba bakoitza hasi baino 5 egun lehenago itxiko da.

-Amaiera Euskal Herria: maiatzak 13

-Amaiera Kantabria: ekainak 26

-Amaiera Asturias: abuztuak 28

-Amaiera Galizia: irailak 23

10 Edozein arrazoiengatik antolakuntzak probaren bat bertan behera utziko balu, izen-emateko zenbatekoaren % 50 itzuliko da.

11 Parte-hartzaileak edozein kategoriako izen-ematea bertan behera utzi nahi izatera, aldeztu aurretik jakinarazi eta justifikatu behar dio antolakuntzari, eta gutxienez proba bakoitza hasi baino 10 egun lehenago. Bestela, parte-hartzaileak gainerako probetan parte hartzeko eskubidea galduko du eta ez zaio izen-emateko zenbatekoa itzuliko.

12 Proba bakoitzean Riderrek gune eskusibo bat izango dute, eta laguntzaile bat eraman ahal izango dute bertara, aldeztu aurretik Check-in bulegoan akreditazioa lortu ostean.

(1) Baliteke data eta tokiak aldatzea, SUPERLIGA SIROKO antolatzaileek beharrezko iritzi gero. Aldaketa oro SUPERLIGA SIROKO webgunearen eta kanal ofizialen bidez jakinaraziko da.

(2) Azken proba "Playoff" bat izango da eta SUPERLIGA SIROKO irabazlea, neska eta mutil bat, zein den zehaztuko du. "Playoff" hori kategoría bakoitzean sailkapen onena lortutako 12 lagunek (gizonezkoak eta emakumezkoak) jokatuko dute, lehen hiru probetan lortutako rankingaren arabera.



II KAPITULUA

I PROBETAN ESKU HARTZEN DUTEN ERAGILEEI BURUZKOA.

I ATALA, SUSTATZAILEARI BURUZKOA

III ARTIKULUA

1 Bere baliabideekin edo besteenekin Txapelketa antolatzen duen pertsona fisikoa edo juridikoa da sustatzailea.

2 Sustatzailearen betebeharrak:

A_ Txapelketa egiteko behar diren baimenak biltzea. Eginkizun horietan SUPERLIGA SIROKO-ren laguntza jaso dezake.

B_ Txapelketa normal garatzen dela arduratzea.

C_ Dagozkion sariak dirutan, materialetan eta garaikurretan eskuratzea.

D_ Txapelketaren zuzendariarekin eta Epaile-buruarekin koordinatzea.

E_ Edozein egiteko dutela ere, Txapelketan lan egiten duten pertsonen ordaintzea.

F_ Txapelketan lan egiten dutenei eta surflariei janaria, edaria eta, hala balegokio, ostatua ematea.

G_ Txapelketa egiteko beharrezko azpiegitura muntatzea.

H_ Txapelketaren segurtasuna, hala uretan (bertan egonez) nola behar den materiala lortuz.

I_ Hala balegokio, ekitaldi paraleloak antolatzea, adibidez, kontzertuak, beste kirol batzuen erakusketa, festa eta abar.

J_ Ekitaldia sustatzea, SUPERLIGA SIROKO-ren aparatu logistikoaren laguntzaz.

K_ Txapelketa-zirkuitua laguntzen duten sponsor guztien publizitatea jartzea.

II ATALA, SPEAKER-ARI BURUZKOA

IV ARTIKULUA

1 Komentaristaren betebeharrak:

A_ Txanden eta likren berri ematea uneoro lehiakideei.

B_ Lehiakideei eta publikoari Txapelketaren garapenaren berri ematea.

C_ Epaileen aginduei kasu egitea eta, hala balegokio, horiek argitaratzea.

D_ EEkitaldiaren sustatzaileei laguntzea, sponsorren, aginduen eta abarren berri emanez.

III ATALA, HONDARTZAKO EPAILEARI BURUZKOA

V ARTIKULUA

1 Hondartzako epailearen funtzioak dira:

A_ Txapelketako likrak zaintzea.

B_ Lehiakideei likrak entregatzea.

C_ Txanda amaitu ostean lehiakideek likrak itzultzen dituztela zaintzea.

D_ Hala balegokio, txanda bakoitzaren hasieran eta amaieran bozina jotzea.

E_ Txanda bakoitzaren denbora kontrolatzea.

F_ Seinaleztapen-panela kontrolatzea txandaren egoeraren arabera.

G_ Eskatzen duten kirolariei txandaren baldintzei, denborari, olatu zenbakiei, lehiaketa-gu-neari, korronteen araberako sarrera-puntuei eta abarri buruzko informazioa ematea.



IV ATALA, EPAILEEI BURUZKOA

VI ARTIKULUA

- 1 SUPERLIGA SIROKO proba ofizialek, derri gorrez, titulua eta indarrean dagoen federazio-fitxa duten epaileak izango dituzte.
- 2 Proba bakoitzaren epaile arduradunen taldea koadro honen arabera egongo da osatuta:

ARBITRAJEKO TALDEA

- 1 Lehiaketako zuzendari
- 1 Epaileburu
- 3 Epaile ohar-hartzaile
- 1 Lehentasunezko epaile
- 3 Spotter
- 1 Speaker

VI ARTIKULUA

- 1 Epaileen funtzioak dira:

A_ Lehiakideek egindako maniobrak modu objektiboan puntuatzea.

B_ Epaileburuen aginduei jarraitzea.

C_ Txapelketaren ordutegia eta Epaileburuak adierazitako txandak betetzea.

D_ Epaileen, epaileen buruaren eta txapelketaren zuzendariaren eginkizunei buruzko araudia betetzea.

Epaileek, konpromisoko olatuak eta zailtasun-maila puntuatzeko, alderdi hauek aztertuko dituzte:

- Maniobra berritzaile eta progresiboak
- Maniobra handien konbinazioa
- Maniobren aniztasuna
- Abiadura, potentzia eta fluxua

EBALUAZIO-ESKALA

[0,0 - 1,9] Eskasa

[2,0 - 3,9] Justua

[4,0 - 5,9] Batezbestekoa

[6,0 - 7,9] Ona

[8,0 - 10,0] Bikaina



V ATALA, EPAILEEN BURUARI BURUZKOA

VII ARTIKULUA

1 Epailleburua da Txapelketan jarraitutako puntuazio-irizpideen arduradun nagusia.

2 Txapelketa hasi baino lehen, bilera bat egingo da lehiakideekin puntuazio-irizpideen berri emateko, itsasoaren egoeraren arabera. Bilera horiek lehiaketa egiten den ondorengo egunetan ere egin daitezke, itsasoaren egoera aldatuko balitz.

3 Epailleburuak funtzio hauek beteko ditu:

A_ Txapelketan jarraituko diren puntuazio-irizpideak zehaztea.

B_ Epallei aginduak ematea.

C_ Txapelketako zuzendariarekin ados izanik, Txapelketak eskatutako mailan ez dauden Epailleak kanporatzea, ekitaldi horretan epai gehiago ematea debekatuz.

D_ Txandak antolatzea, epaileek ondoz ondoko hiru txanda soilik epaitu ahal izateko.

E_ Txandak garatzen direnean, Epailleburuak puntuazio-orriak ikuskatuko ditu txanda baten eta bestearen artean maila uniforme bat mantentzen dela eta epaileek erabil dezaketen puntuazio-eskala osoa erabiltzen dela ziurtatzeko. Interferentzia-arauak era perfektuan eta zorrotz aplikatuko dira. Era berean, epallei jakinarazi beharko die beren batezbestekoak edo prozedurak ez dira bateragarriak gainerako taldekoenekin. Txanda baten amaieraren eta hurrengoaren hasieraren artean hartu beharko du neurri hori epailleburuak.

F_ Txanda bakoitzeko olatuak kontatzearen eta epaileek olatuak era ordenatuan identifikatzen dituztela ziurtatzeko ardura izango du.

G_ Oztopatu zaion surflariari beste olatu bat duela jakinarazteko dagozkion aginduak eman beharko dizkio.



VI ATALA, TXAPELKETAREN ZUZENDARIARI BURUZKOA

X ARTIKULUA

A_ Izen-emateak egiaztatzea

B_ Kirolarien lizentziak eta elementu arbitrala egiaztatzea.

C_ Probaren seeding-a egitea.

D_ Probaren baldintzak

- Serieen denbora
- Txapelketa-eremua
- Lehentasunen araua
- Probaren ordutegia

E_ Lehiaketaren araudia.

F_ Erreklamazioen arreta

G_ Antolatzailearekin eta Epaileburuarekin koordinazioa.

H_ Txapelketa-batzordearen (antolatzailea, Epaileburua eta Txapelketaren zuzendaria)

I_ Antidoping-aren zozketa.

J_ Probaren rankinga.

K_ Probari buruzko informazioa.

L_ Tabulazio-sistema egiaztatzea.



III KAPITULUA

| PRIZE MONEY-A

XI ARTIKULUA

Bi kategorietako, gizonetzkoak eta emakumezkoak, sarien xehakapena probako:

	OINARRIA	BEZa %21
1º	1.886,79€	396,23€
2º	943,40€	198,11€
3º	235,85€	49,53€
3º	235,85€	49,53€

ARTIKULUA XII

SUPERLIGA SIROKO irabazleentzako sarien xehakapena:

EMAKUMEZKOEN KATEGORIA

	OINARRIA	BEZa %21
1º	5.660,38€	1.188,68€

GIZONEZKOEN KATEGORIA

	OINARRIA	BEZa %21
1º	5.660,38€	1.188,68€

*Ordainketa guztiak banku-transferentzia bidez egingo direnez, parte-hartzaileek BKK/IBAN adierazi beharko dituzte izena-ematean.



IV KAPITULUA

| LEHIAKETARI BURUZKOA.

XIII ARTIKULUA

- 1 Ez da olatu edo marea lehenetsirik izango mutilentzat eta nesKentzat.
- 2 Txandek 20 minutuko iraupena izango dute, antolakuntza aldatetaren bat egiten duenean izan ezik.
- 3 Txandetan lehentasun-legea beteko da.

LEHENTASUNA

-Lehentasuna duen surflariak baldintza gabe pasatzeko eskubidea izango du aukeratzen duten edozein olatu harrapatzeko.

-Txandako beste surflariak arraun egin eta olatu bera har dezakete, baina lehentasuna duten surflarien puntuazio-potentziala oztopatzen ez badute soilik.

-Olatu bat hartzen edo arraun egiten duenean galtzen du lehentasuna surflariak.

INTERFERENTZIA

-Surflari batek lehentasuna duen beste bati puntuazio-aukerak oztopatzen badizkio, zigorra jarriko zaio, interferentziagatik.

-Egoera gehienetan, horrek esan nahi du surflari horri txanda horretako puntuazioa kalkulatzeko puntuazio oneneko olatua soilik hartuko zaiola kontuan.

- 4 Ekitaldiaren eremu bakoitzean zehaztuko dira portaera-arauak.



WWW.SUPERLIGASIROKO.COM